

Euskaltzaleen Biltzarra. 2024eko azaroaren 23ko Biltzar Nagusia Hazparnen.



Ezin etorriak: Daniel Landart, Miren Amestoy, Xabet Andueza, Legarto Monique, Claverie Beñat, Anne-Marie Onyskow, Pierra Etchecopar, Gehexan Alfaro, Frédéric Vaillant.

Biltzar Nagusira bai bazkira ez: Goyheneix Béatrice,

1- Jaz: Saran ginen, 20 bat lagun bildu ziren. Hor genuen **Kepa Altonaga** “*Axularen gerizapean*” bere liburu baliosaren aurkezten. **Jurgi Kintana** ere mintzatu zitzaigun EB-ren historiaz, gai hortaz Charriton bezainbat jakitate bazuela. Arras interesgarria izan zen.

2- Aurten: ez dugu liburu aurkezpenik baina argitaratzeko xedeak bai. Gero aipatuko ditugu.

A- Nola iragan dugu urtea?

Parte ateraldi zoragarri baten prestatzen. Lehenik Peio sartu zen harremanetan **Karmelo Landarekin**. Erreleboa pasatu zidan eta nire lana izan zen, gehienbat, labur biltzen Karmelok igorri dokumentazio nasaia, WhatsApp, (*Ez dakit gehiengoak baduen aplikazio hori EB-n.*) eta jendeari zabaltzen, ateraldi horretara etortzeko gutizia emanez.

Arrakasta izan zuen dakizuen bezala. Maluruski izena eman zuten batzuk ezin etorria izan zuten. Ondorioz diru pixka bat galdu genuen. Baina zinez merezi zuen. Ondoko aldi 50€-ko langa hori gaintitu beharko dugu segur aski. (*Autobusaren prezioa azkarki goratu da. Aizpuruaren kasuan Langileen journala % 17 goratu dute.*)

Ezarriak ditugu interneten, dakizuen bezala, Karmeloren dokumentu batzuk, Peioren bilduma Herrian agertua, argazkiak, Peio eta Peio Soulé-renak, nireak. Zinez tokian tokiko bertsuak irakurtzea aberasgarria izan zen. **Bilbon dabil Gabriel Aresti*** lema barnetik sentitu genuen. Karmeloren liburua, izen berekoa, anitzek erosi zuten. **Xabier Monasterio** ere hor genuen, idazlea eta itzultzailea da Xabier bai eta mintzalari trebea. Zinez loriagarria izan zen bien entzutea, hain argiki eta gogotsu mintzo bai ziren biak. Xabierrek “*Iparreko eleak*” liburu ona publikatua du.

Hemen ditut hiru liburu horiek ez ditzagun ahantz. Hiruak baliosak baitira, beti modan diren horietakoak dira.

B- Bertzerik egin ote zuen Euskaltzaleen Biltzarrak?

Bai Beñat Soulé aritu zen liburu baten ontzen, Peio haren ikuskatzen. Gero aipatuko dugu zehazkiago.

Badugu ere bertze liburu baten asmoa, eta lana abiatua da: Mikel Epalzaren “*Pêcheurs d’hommes*” euskaratzea. Hau ere gero aipatuko dugu zehazkiago.

3- Txosten moralaren bozkatzea.

Aho batez alde bozkatua izan da goragoko lerroetan erran dena, txosten moral gisa ekarria izan baita elkarte buruarengandik..

4-Diru egoera:

Beñat Soulé diruzainak eman du 2023ko kontuen berri (23/01/01-23/12/31)

Urteko etekina 1538 izan zen. Aurtengoa ez da hain ona izanen. Ateraldian 305€-ko galtzea izan da. **Urtesariak** xuhurtzen ari dira: 2022an 33, 2023an 30, aurten orainokoa 24. Ordaindu ez dutenentzat azken epea da abenduaren 12a. Jaz bezala, **20€-tan** mantentzen dugu bazkidetza.

Diruzainaren helbidea: Beñat Soulé Haltzagaraia, 429 rue Haltzabea karrika, 64480 USTARITZ

Aipatu bi liburuak argitaratzeko doia diru bagenuke, baldintza hauetan haatik: lehena EEPren laguntzarekin (*erdiesten badugu*); bigarrena Mikel Epalzaren parte hartzearekin.

Aho batez bozkatua izan da.

3 Xedeak

A- Benaten liburua EEP-ren diru laguntzarekin, menturaz. Galdea egin beharko 2024 urte

hastapenean. Beñatek aurkeztu du laburzki: **Baiguratik Lapurdira** du titulua. Badira oroitzapenak, anekdota eta gertakari (*denak egiazkoak, bizi izanak, ikusi edo hunkitua nautenak.*)

Bertsu bilduma, Xanpunek-eta emanak semea zendu zelarik, nihaurek idatziak, norbaitek galde eginik edo ez, kantuak nik sortuak.

Aita zenaren lau bertsu sail; aitatxiren bi bertsu sail.

Aitzin solasa Peio Jorajuriak.

250 bat orrialde. Gehi argazkiak.

B- Mikel Epalzaren **“Pêcheurs d’hommes”** liburua izan da.

Jean-Clauden ideiatik abiatu Mikel Epalzari proposatua izan zaio bere liburua euskaratzea. Xant Errotabehere, Pierra Etchecopar eta Mizel Jorajuria ari dira lan horretan. Erran behar da itzultzaile profesionalen izenak emanak izan zaizkiola Mikeli; dirua behar da haatik horretarako. Guk, itzulpena eta maketazioa musu-truk egiteko prest ginela erran diogu eta pozik onartu du.

2024an ateratzeko asmoa du Mikelek, erran nahi baitu EEPren laguntzarik gabe. Bera prest da diru parte baten aitzinatzeke. Agian astia hartzen ahalko du itzulpena irakurtzeko eta hala beharrean xuxenketak egiteko.

Salmentarako eta diru sartzeak kudeatzeko nola antolatuko garen administrazio kontseiluan aipatu eta Mikelekin adostu beharko.

Abendu hondarreko itzulpena bukatua izanen da.

4- Ateraldi proposamen bat? Laudiora (Arabian) Beñat Castorenen proposamena jadanik aipatua eta arras interesgarria ematen duena nahiko genuen zehaztu baina Beñat etzen hor. Ondoko aldi batez ondoko dugu 2025eko ateraldi kulturala.

5- Eskerrak:

A- Isabelle **PARGADE Auzapezari:** zuzeneko harrera ederra egin digu.

Gutunez ere bere baimena ematerakoan: *Jaun lehendakaria,*

Urriaren 8ko gutunaren bidez zure elkartearen biltzar nagusia azaroaren 23an HAZPARNEN antolatzea galdatu didazu, eta ondotik Bihotz Sakratuaren kaperaren bisita egitea.

*Plazerekin errezibituko zaituztegu zuen biltzar nagusirako, 10:00etan, **Elgar zentroko Emile Lavigne gelan** (Gaskoina karrika, II); ene zerbitzuek gela oraindanik zuendako erreserbatua dute.*

*Ondotik, Joseph LAFITTE jaunak, kulturaz, euskaraz eta ondareaz arduratzen den ene axuantak gidatuko zaituztete gure **Bihotz Sakratuaren kapera** zoragarria bisitatzeke.*

Igurikatzen zenuena bete dudalakoan,

Har ezazu, jaun lehendakaria, ene agurrik beroena

Isabelle PARGADE, Auzapeza

B- Joseph Lafitte Jaunari.

Bihotz sakratua edo Misionesten kapera, zoragarriki berritua, ederki aurkezturik, bisita gidatu balios batean..

5- Ondotik bazkari ederra egin da Ezkiak (**Les Tilleuls**) ostatuan prezio ezin hobean.

Hor ziren: Jean-Claude Iribarren, Pierra Amestoy, Eric Traomilin, Xan Errota behere, Mizel Jorajuria, Etiennette eta Mixel Etcheto, Peio Jorajuria, Piarres Aintziart, Beñat Soulé, Martine Camblong, Mailen Camblong Ithurbide, Maité Larramendy. Azken mementoko ezin etorria: Daniel Camblong.

* *Lehendakariak ohar bat egin zuen Arestiren “Josepa Mendizabal Zaldibian” poemari buruz (Etarren amek asko sufritzen dute, semeak hiltzen dizkietenean, eta batez ere semeek hiltzen dutenean...) Hori idatzi zuen Arestik, atentatu baten ondotik (Cafeteria Rolando Madrid 1974), zoinen hobendun ekarri baitzuten Juan Manuel Galarraga Mendizabal, Zaldibiar/Senpertarra ; honek frogatu zuen argiki etzela haren ekintza izaten ahal)*